# IRITZIA

EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEAREN ETA KAZETARIEN EUSKAL ELKARGOAREN EKIMENEZ
A INICIATIVA DE LA ASOCIACIÓN Y EL COLEGIO VASCO DE PERIODISTAS

## Los directores de la prensa vasca exigen el respeto a los derechos humanos y garantías procesales del periodista Pablo González

A la sociedad vasca, a sus instituciones y a las autoridades europeas,

Pablo González es un periodista vasco que, bajo la acusación de ser un espía ruso, lleva más de 6 meses encarcelado en Polonia, en prisión preventiva, incomunicado y sometido a un régimen carcelario duro.

Fue arrestado en febrero, cuando estaba trabajando como reportero en ese país, informando sobre el éxodo de la población ucraniana tras la invasión rusa. González es un experto en este terreno y sus trabajos periodísticos han sido publicados en diferentes medios de comunicación.

Hasta el momento, no se ha presentado ninguna prueba que justifique su detención y encarcelamiento.

Las condiciones de vida que Pablo González padece en prisión son inaceptables: sufre un régimen de incomunicación, no recibe correspondencia con normalidad, no se le permiten visitas familiares y tiene problemas para comunicarse con sus abogados. En este caso se están vulnerado la libertad de prensa, el derecho a la defensa y los derechos más básicos de las personas detenidas que están recogidos en diferentes normas y tratados de la Unión Europea y de las Naciones Unidas.

Como directores de periódicos vascos, defendemos esos principios democráticos, los derechos humanos y exigimos que, desde la presunción de inocencia, se apliquen en el caso de Pablo González.

Pedimos a todas las instituciones implicadas que hagan un esfuerzo por su liberación y para garantizar que tenga un proceso judicial justo y transparente, con independencia del resultado. Asimismo, reiteramos la necesidad de que, en cualquier circunstancia o emergencia, se deje trabajar a los medios de comunicación y a los y las periodistas con libertad, seguridad y plena garantía de respeto a los derechos humanos. La guerra no puede ser excusa para cercenar la libertad de expresión y el derecho de la ciudadanía a la información.

## Euskal prentsako zuzendariek exijitzen dute errespeta daitezela Pablo Gonzalez kazetariaren giza eskubideak eta berme prozesalak

Euskal gizarteari, haren instituzioei eta Europako agintariei,

Pablo Gonzalez euskal kazetari bat da, espioi errusiarra izatea egotzita sei hilabete baino gehiago daramana Polonian kartzelaturik, behin-behineko espetxealdian, inkomunikatuta eta espetxe erregimen gogor baten menpe.

Otsailean atxilotu zuten, herrialde hartan berriemaile zebilela, Errusiaren inbasioaren ondorioz ukrainarrek hasi zuten exodoari buruz informatzen. Gonzalez aditua da alor horretan, eta haren kazetaritza lanak zenbait hedabidetan argitaratu izan dira.

Orain arte, ez dute inolako frogarik aurkeztu hura atxilotu eta kartzelatu izana justifikatzeko.

Pablo Gonzalez kartzelan sufritzen ari den bizi baldintzak onartezinak dira: inkomunikatuta daukate, ez dizkiote gutunak normal helarazten, ez diote uzten senideen bisitarik hartzen, eta arazoak ditu bere abokatuekin komunikatzeko. Hortaz, kasu honetan, prentsa askatasuna urratzen ari dira, defentsarako eskubidea ere bai, eta baita atxilotuen eskubiderik oinarrizkoenak ere, zeinak jasoak baitaude Europako Batasunaren eta Nazio Batuen zenbait arau eta tratatutan.

Euskal egunkarietako zuzendari garen heinean, printzipio demokratiko horien eta giza eskubideen alde gaude, eta zera exijitzen dugu: aplikatu daitezela Pablo Gonzalezen kasuan, errugabetasun presuntzioa errespetatuz.

Tartean diren instituzio guztiei eskatzen diegu ahalegina egin dezatela Gonzalez aske utz dezaten eta prozesu judizial bidezko eta garden bat izango duela bermatzeko, emaitza gorabehera. Halaber, berriro adierazi nahi dugu nahitaezkoa dela, egoera edo larrialdia edozein dela ere, libre, seguru eta giza eskubideak errespetatzeko berme osoz lan egiten uztea hala hedabideei nola kazetariei. Gerra ezin da aitzakia izan adierazpen askatasuna deuseztatzeko eta herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea urratzeko.

**Iñaki SOTO,** GARA **Martxelo OTAMENDI,** BERRIA **Joseba SANTAMARÍA,** DIARIO NOTICIAS DE NAVARRA **Iñaki GONZÁLEZ,** DEIA **David TABERNA,** DIARIO VASCO **José Miguel SANTAMARÍA,** CORREO **Marta MARTÍN,** DIARIO NOTICIAS DE ALAVA **Eduardo IRIBARREN,** DIARIO NOTICIAS GIPUZKOA

**EUSKAL HERRIKO EGUNKARIA GARA**

**Zuzendaria:** Iñaki Soto. **Aurreikuspenak eta edizioa:** Mikel Jauregi, Iraia Oiarzabal, Beñat Zaldua.
**Aktualitatea:** Ramon Sola, Amaia Ugarte, Ruben Pascual, Ane Urkiri. **Papereratze taldea:** Alazne Basañez, Ainara Lertxundi, Mirari Isasi, Iker Bizkarguenaga.

**iritzia@gara.net I euskalherria@gara.net I mundua@gara.net I ekonomia@gara.net I kirolak@gara.net I kultura@gara.net**

**DONOSTIA: Tel: 943 31 69 99** / Faxa: 943 31 69 98. **URRUÑA: Tel: 0 975 12 97 01 HARPIDETZAK: Tel: 943 50 60 10 / harpidetzak@naiz.eus**

**Araba:** Diputazio kalea, 17-1a. 01001 Gasteiz. **Bizkaia:** Gran Vía, 2-4.a. 48001 Bilbo. **Gipuzkoa:** Portuetxe, 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. **Lapurdi:** Hedagunea-Media Center; 8, ZA Martinzaharenia. 64122 Urruña. **Nafarroa:** Pozo Blanco, 15-5 bulegoa. 31001 Iruñea.

**Argitaratzailea:** Baigorri Argitaletxe S.A. **Inprimategia:** Bidasoa Inprimatzeko Zentroa, S.A.. **Lege Gordailua:** VI-53-1999. **Comission Paritaire:** 0312 U 81405.

## ZUGAZART

